



EXTRAESKOLARRAK

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

ZUMBA-FUNKY: Extraeskolar honetan, fitness-a eta dantza nahasten dira. Alde batetik, Zumba programa lantzen da. Hau, musika latino eta internazionalen oinarritutako dantza-fitness klase bat izango litzateke. Giro dibertigarri eta entretenigarri batean, mugimendu libreak erakutsitako pauso basiko batzuekin konbinatzen dira. Horretarako, kanta eta estilo oso ezberdinak erabiltzen direnez (rock and roll, salsa, merengue, dance...) klaseak nahiko eramangarriak bilakatzen dira ikasleentzat. Bestalde, funky estiloan ere sakontzen da. Beraien gorputzaren kontrola eta koordinazioa lantzen irakasten zaie eta ondoren koreografia batean landutakoa praktikan jartzen da.

<https://youtu.be/5Z9bvAv2ewA>

EUSKAL DANTZA: Dantza ezberdinak eginez ondo pasatzea da eskolaz kanpoko ekintza honen helburua. Horretarako, beraien gorputza ezagutzeko ariketak, banaka, binaka, zein taldean egiteko dantza eta jolasak, eta, azkenik, bertako dantzak lantzen dituzte.

<https://www.youtube.com/watch?v=dRAdD9LLEAE>

KIROL HASTAPENA ETA JOLASAK:

Extraeskolar honetan norbere gorputzaren ezagutza eta kontrolarekin erlazionatutako ekintzak egiten dira, haurren psikomotrizitate nahiz koordinazioa lantzeko jarduerak. Horretaz aparte, jolas eta kirol ezberdin pila egiten dituzte, besteak beste, saskibaloia, futbola, eskupilota, eskubaloia, herri kirola eta hockeya.

<https://youtu.be/3V3HF4UAuT0>

JUDO: Jolasen bitartez eta ondo pasaz judoko oinarritzko ezagupenak barneratzea izango da saio hauen helburua. Ikasleek judoan arituz balore (parekidetasuna, errespetua, elkarbanatzea...) eta jarrera aproposak bereganatzea. Horrela, hauen garapen soziala zein pertsonala (autonomia, autoestimua...) sustatuz.

Ikastolarekin bat ikasleen heziketa prozesuan parte hartzea honekin bat datozen helburu komunak sustatuz: euskaraz bizitzea...


PATINAJEA: Patinajeko klaseetan umeek trebetasunez eta zihurtasunez patinatzeko oinarritzko teknikak ikasiko dituzte. Klaseak PatinEskolako tituludun monitoreek ematen dituzte eskolak diseinatutako metodologiari jarraituz, irakaskuntzaren eredu ludiko batean oinarritzen dena, irristaketa teknika jolasaren bidez ikasten delarik.

<https://youtu.be/wDkZ5tZskAE>

SORMEN TAILERRA: Eskolaz kanpoko jarduera honen helburu nagusienetakoa sormenaren bidez hurrek gozatzea da. Orain artean ezkutatua egon den sormena landuko dugu material ezberdinak erabiliz eta bakoitzak bere ekoizpenak edo esku lanak burutuz. Era honetan, norberak berak dituen gaitasunak ikusi eta horietaz gozatu ahal izango du esku lan edo arte ezberdinak sortuz. Era honetan, bakoitzaren sormena, irudimena, motrizitate fina eta elkarlana bultzatuko dira.

SOIN ERRITMIKOA:

Ekintza honetan ballet-a, dantza eta gimnasia uztartzen dira. Saioetan teknika ezberdinak (spagat, frontal, zubia, txiribueltak, mariposa,...) lantzen dira, koordinazio ariketak, etab. Ariketa hauek zutik eta lurrean egiten dituzte. Horretaz gain, hainbat jolas ere egiten dituzte. Eta azkenik urte amaierako ikuskizuna prestatzen dute.



ANTZERKIA:

Gure antzerki tailerrean jolasak egiten ditugu, antzerkia talde lana dela jakin dezaten. Inprobisazioak egiten ditugu, umek irudimena garatu dezaten. Dantza egiten dugu, gorputz adierazpena garatzeko. Ahotsa proiektatzen ikasten dute. Batez ere jolasaren bitartez denok ditugun lotsak eta mugak gainditzen laguntzen duen tailerra da.

ESKOLA KIROLA: Lehen Hezkuntzako 3. Mailatik 6.mailara, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen eskola kiroleko programan parte hartzen dugu, Donostian, kirol ezberdinetan: saskibaloia, futbola, areto futbola, eskubaloia, atletismoa, errugbia, mahai tenisa, hockeya, igeriketa ...

BIGARREN HEZKUNTZA

DANTZA GARAIKIDEA

Dantza-ekimen honen xedea da ondorengo hiru diziplinak lantzea: dantza garaikidea, dantza sortzailea eta dantza komunitarioa. Modu batean, dantza garaikidea nagusitzen da aipatutako hiru diziplinen artetik. Izan ere, adin guztietara zuzentzeaz gain, aberatsagoa baita estilo eta teknikei dagokienez. Horien artetik lantzen ditut Graham, Release, Limon, Contact, Inprobisazioa eta Counter Technique.

Betiere, ikastaroen xedea da partaide diren guztiek dantzaz gozatzea, elkarren artean talde bat sortu eta urte bukaerarako erakuskizun bat prestatzea. Horretaz gain, ikastaro hauek baliabide izaten dira ikasleei afizio berriak transmititzeko; eta egiaz, bizipen garrantzitsua bilakatzen da pertsona asko eta askotan.

BOLEIBOLA

Gipuzkoako txapelketan parte hartzen dute ikastolako taldean. Entrenamenduak astean bi aldiz izaten dira ikastolan edo Astigarragako kiroldegian eta asteburu gehienetan partidak izaten dituzte.

ARETO FUTBOLA

Gipuzkoako txapelketan parte hartzen dute ikastolako taldean. Entrenamenduak astean bi aldiz izaten dira ikastolan bertan eta asteburu gehienetan partidak izaten dituzte.

ATLETISMOA

Atletismoan dauden diziplina ezberdinak ezagutzea, kirola egiten ikastea, momentu onak pasatzea eta lagun berriak egitea da ekintza honen helburua.

Astean bi egunetan egiten dituzte entrenamenduak eta zenbait asteburutan txapelketak ere izaten dituzte.